


KIRIMEN URIBE
Bilbao-New York-Bilbao



Irati Agirre
Aixerrota BHI, 13-14

Aurkibidea

Kirmen Uribe	2
Sarrera	2
<i>Bilbao-New York-Bilbao</i>	
• Kokapena	3
• Gaia	3
• Argumentua	4
• Gertaera nagusiak	4
• Egituraketa	5
• Pertsonaiak	5
• Baliabideak	7
Iritzia	8
Bibliografia-Webgrafia	8

Kirmen Uribe

Kirmen Uribe 1970eko urriaren 5ean Ondarroan (Bizkaia) arrantzale familia batean jaio zen idazlea da. Euskal Filologia ikasi zuen Gasteizen eta Literatura Konparatuko graduondoko ikasketak egin zituen Trenton (Italia). Uribek argitaratutako lehenengo lana *Lizardi eta erotismoa* izan zen eta, horri esker, Becerro de Bengoa literatur saria jaso zuen 1995ean kartzelan zegoela derrigorrezko soldaduzkara joan nahi ez zuelako.



2001. urtean bere lehenengo poema-liburua argitaratu zuen, *Bitartean heldu eskutik*, eta eragin handia izan zuen euskal literaturan. Haur eta gazte literaturaren arloan ere hainbat lan idatzi ditu, hala nola, Garmendia bilduma. Azkenik, eleberriari dagokionez, lanik aipagarriena *Bilbao-New York-Bilbao* nobela da. Hamalau hizkuntzataraz itzulia izan den eleberri horri esker, Kirmen Uribek 2008ko Kritika Saria eta 2009ko Espainiako Literatur Saria jaso zituen. Aurreko guztiaz gain, Uribek nazioarteko hainbat literatura jaialditan parte hartu du, hala nola, New Yorkeko *World Voices* edo Taipeiko nazioarteko poesia jaialdian, eta bere olerkiak entzute handiko nazioarteko aldizkarietan argitaratu dira, besteak beste, *The New Yorker* edo *Lyricleine* Berlineko aldizkari elektronikoan.

Sarrera

Izenburuak berak adierazten duen moduan, *Bilbao-New York-Bilbao* bi hiri horien arteko hegaldi batean kokatuta dago eleberria. Hala ere, hegaldi hori istorio guztiz desberdina kontatzeko aitzakiatzat baino ez du hartzen Kirmen Uribek, eleberriak nolabaiteko jarraitasun logikoa izan dezan.

Biografian aipatu bezala, Ondarroako arrantzale familia batean jaio zen idazlea eta bere familiako hiru belaunaldiren historia azaltzen du hain zuzen ere nobelan: aiton-amonei dagokiena, gurasoena eta Uribe berarena. Garai bakoitzeko ohiturak aztertuz, galzorian dagoen euskal kostaldeko arrantza tradizioari buruzko hausnarketa sakona egiteko aukera ematen du *Bilbao-New York-Bilbao* eleberriak. Horretarako, idazleak irakurlearen eskura jartzen ditu e-mail, eguneroko eta ezkutitzak, nobela idazteko prozesuaren parte izan dela sentiarazteko.

Bilbao-New York-Bilbao

- **KOKAPENA**

Hasteko, leku-denborazko kokapenari dagokionez, istorioa hiru belaunaldi desberdinetako gorabeherei buruzkoa denez, hiru leku eta garai desberdinetan kokatzen da. Hasteko, ildo nagusia edo Uriberen belaunaldikoa 2008 urtean kokatuta dago, idazleak Bilbotik New Yorkera egiten duen hegazkin bidezko bidaiari hain zuzen ere, hau da, hegazkinean bertan baita Loiu, Frankfurt eta JFK aireportuetan ere. Bigarrenik, gurasoen istorioaren zatiak frankismoaren garaian kokatzen dira eta aitak Rockall inguruan arrantzan egindako denboraldietan eta Ondarroan bertan oinarrituta daude. Azkenik aiton-amonen belaunaldia aztertzen deneko garaia 36ko Gerraren aurrekoa da eta Ondarroan kokatuta dago hori ere.

Istorioren narratzailea idazlea bera da. *Bilbao-New York-Bilbao* eleberraren bitartez, galzorian dagoen euskal arrantza tradizioaren garapenaren azterketa egin nahi du batetik, eta bere familiako aurreko bi belaunaldiei buruzko informazioaren bidez aiton-amonen eta gurasoen bizitza hobeto ezagutu nahi du bestetik Uribek. Horretarako, hainbat aditu, senide, lagun zein ezagunekin egiten du hitz eta horietako bakoitzak gertaera desberdinak kontatzen dizkio. Hori dela eta, eleberrian parte hartzen duten pertsonaiak asko dira. Horien artean aipagarrienak hurrengoak dira: Uriberen belaunaldian idazlea bera, Nerea (bere emaztea) eta Unai (Nerearen semea); gurasoen belaunaldian aita batez ere eta azkenik, aiton-amonen belaunaldian aitona Liborio, Bastida arkitektoa eta Arteta margolaria. Aurretik esan bezala, aipatutakoez gain beste hainbat pertsonaia ageri dira baina ez dute hainbesteko garrantzirik istorioaren funtsa ulertzeko.

- **GAIA**

Euskal arrantza tradizioa: galzorian dagoen bizimodu horren bilakaeraren azterketa Uribe familiako hiru belaunaldiren bitartez.

- **ARGUMENTUA**

Kirmen Uribe idazleak Loitik JFKra egiten duen bidaia aitzakiatzat hartuta bere familiako hiru belaunaldiren historia azaltzen du (berarena, gurasoena eta aiton-amonena), galzorian dagoen euskal arrantza tradizioaren bilakaera aztertzeke asmoz. Aitona Liborioren ezagunei egindako elkarrizketen bidez “Dos Amigos” itsasontzian arrantzan ibili zela ohartzen da narratzailea baita udatiarrentzako kasetak zituela hondartzan. Azken horri esker Liboriok Bastida arkitektoa eta Arteta margolaria bezalako intelektualak ezagutu zituen, bere bizitzan garrantzi handia izan zuten bi pertsonaia.

Aita Joseri dagokionez, Eskoziatik gertu dagoen Rockall haitzaren inguruan ibili zen arrantzan bere “Toki Argia” itsasontzian. Azkenik, Kirmen Uribek lehorreko lan bat bilatzea erabaki zuen. Horrela, hiru belaunaldiak aztertuta, argi geratzen da arrantza tradizioa galzorian dagoela eta narratzaileak itsasontzia baino nahiago izan duela hegazkina.

- **GERTAERA NAGUSIAK**

Istoria kontatzen duen narratzailea idazlea bera da, Kirmen Uribe, Ondarroako arrantzale familia batean jaiotako gizona, bere emazte Nerea eta haren seme Unairekin bizi dena. 2008an, New Yorkera joan behar izaten du lana dela eta. Loiu eta JFK bitarteko bidaia hori aitzakiatzat hartuta, Uribe familiako hiru belaunaldi desberdinen historia azaltzen du narratzaileak: aiton-amonena, gurasoena eta idazlearena berarena. Urte batzuk lehenago, bere aitonaren arrantza ontziaren izenaren (*Dos Amigos*) jatorriaren inguruko jakin-mina piztu zitzaion eta bere aitonaren bizitzari eta desagertzen ari den euskal arrantza tradizioari buruzko nobela bat idaztea erabaki zuen. Horretarako, aitonaren senide, lagun, lankide eta ezagunak elkarrizketatzen ditu. Aitonak Liborio zuen izena eta *Dos Amigos* izeneko itsasontzian egiten zuen arrantzan 36ko Gerraren aurretik; izen horren jatorria aurreko jabeak jarritakoa baino ez zen, ez zegoen bigarren lagunik. Horrez gain, udatiarrentzako kasetak ere bazituen hondartzan eta horri esker, intelektual eta artista ugari ezagutu zituen, horien artean Bastida arkitektoa eta Arteta margolaria. Azken honena zen hain zuzen ere bere koadrorik gustukoena: Artetak margotutako murala eta hiltzera zihoala esan zioten egunean, margolan hori ikustera eramane zuen erraina, egun horren oroitzapen on bat gorde zezan. Aitari dagokionez, Jose zuen izena eta *Toki Argia* izeneko itsasontziko

lemazaina zen frankismoaren garaian. Arrantzale guztiek bezala, hilabete ugari ematen zituen itsasoan eta senideak oso noizbehinka ikusteko aukera baino ez zuen. Rockall inguruan egin ohi zuen arrantza, Eskoziatik gertu dagoen haitza eta eleberri osoan zehar horren inguruko gorabeherak azaltzen dira. Jose hiltzean, Kirmenek, amak eta emazteak eskualde hori ezagutzera joatea erabakitzen dute. Azkenik, eleberriaren bidez argi geratzen da arrantza tradizioaren gainbehera nahitaezkoa dela; izan ere, teknologia berrien agerpenarekin arrantza teknika tradizionalak alde batera utzi eta jende gutxiagok du merkatuan lehiatzeko aukera, Jose Uribek berak seme-alabei agindu zien lehorreko lan bat bilatzeko.

- **EGITURAKETA**

Aurretik esan bezala, eleberrian Kirmen Uriberen familiako hiru belaunaldi desberdinen gorabeherak azaltzen dira. Horien artetik, ildo nagusia idazlearen belaunaldian oinarrituta dago eta hori agerian geratzen da kapituluaren antolaketarekin. Kapitulu gehienak idazleak Loiuko aireportutik JFKra egiten duen bidaiaren bilakaeraren edo eleberrirako informazioa bilatzeko egiten duen ikerketaren araberakoak dira. Horrez gain, Uribek eleberria idaztean ez du egitura lineala antolatu; izan ere, etengabeko saltoak ageri dira istorioan zehar garai batetik bestera, belaunaldi batetik bestera, leku batetik bestera... Idazleak, nobelaren hasieran, beranduago garatuko dituen gertaerei buruzko zertzeladak baino ez ditu ematen, hau da, belaunaldi bakoitzeko pertsonaia garrantzitsuenak aipatu eta haien gorabeherak gainetik azaldu baino ez du egiten. Gero, eleberria aurrera egin ahala, pertsonaien arteko harremanak eta idazlearen senideen bizitzak ezagutzeko aukera du irakurleak.

- **PERTSONAIAK**

Eleberriko pertsonaia nagusiak Kirmen Uriberen aita eta aitona dira; izan ere, *Bilbao-New York-Bilbao* eleberria idatzi izanaren helburu nagusietako bat idazleak haien bizitza hobeto ezagutzea da. Gainerako pertsonaiak, helburu hori lortzeko Uribek erabiltzen dituen baliabideak baino ez dira. Nobela idaztearen bigarren helburua galzorian dagoen itsasoari lotutako bizimoduaren bilakaera aztertzea da, baina helburu hori Kirmen Uriberen aitaren eta aitonaren bizitza

aztertzearekin batera betetzen da, biak arrantzaleak izan baitziren garai desberdinetan.

- **Liborio Uribe.** Liborio Kirmenen aitona da. Bizitza osoan zehar Ondarroan bizi izan zen. Lanari dagokionez, oholezko aladagelak zituen hondartzan, udatiarrentzat. Horri esker hainbat artista eta intelektual ezagutu zituen, hala nola Bastidatarrak. Horrez gain, arrantzalea ere bazen, noski eta “Dos amigos” izeneko itsasontzia zuen. Oso bihotz oneko pertsona zen eta gutxi barru hiltzera zihoala esan zioten egunean ere, ahal izan zuen guztia egin zuen senideak pozik egotearren. Hala ere, aurretik aipatutakoaz gain ezer gutxi zekien narratzaileak eta horregatik, ikertu eta eleberria idazteari ekin zion.
- **Jose Uribe.** Jose Kirmenen aita da. Bere aitak bezala, arrantzalea izan zen, hilabete ugari ematen zituen Rockall inguruan arrantzan *Toki Argia* izeneko itsasontzian. Bere emazteari bizitzeko adina diri izango zutela ziurtatzearen alturako lemazainaren titulua atera zuen, baina seme-alabei lehorrean lana bilatzeko agindu zien. Aitonarekin gertatu bezala, idazleak aitaren bizitza hobeto ezagutzeko jakin-mina du eta ikertzeari ekiten dio.

Narratzailea bera ere, Kirmen Uribe, pertsonaia garrantzitsua da istorioan. Nahiz eta bere bizitzako xehetasunik ez eman, eleberrian azaltzen diren gertaera guztiak eta parte hartzen duten pertsonaia guztiak nolabaiteko harremana dute idazlearekin. Horrez gain, bere bizitza aitonaarena eta aitarenarekin erlazionatzeko ahaleginak egiten ditu narratzaileak. Hasteko, argi dago bere bizimodua ez dagoela itsasoari lotuta, hala ere, antzinako portuak gaur eguneko aireportuekin konparatzen ditu eta berdin egiten ditu itsasontzi eta hegazkinekin. Horrela, Bilbao-New York-Bilbao hegaldia aitonaaren eta aitaren bizimoduarekin erlazionatuta geratzen da. Horrez gain, Liboriok eta Josek bezala bere bizipenak laburbilduko zituen koadroa izan nahi du Kirmenek. Aitonaarena Artetaren murala bazen eta aitarena Mielek egindako Rockalleko atxilotzearena, berea Scott Hightowerren etxean ikusitako mihisea izango zen.

- **BALIABIDEAK**

Espresaerei dagokienez narrazioa Uribek *Bilbao-New York-Bilbao* erabilitako gainerako guztien gainetik nabarmentzen da. Orokorrean azaldutako gertaerak bizitako norbaitek narratzaileari kontatu edo berak bizi izan zituenez, iraganean dago idatzita nobela eta batere elkarrizketarik erabili gabe. Hala ere, Loiu eta New York bitarteko bidaian gertatutakoak orainaldian daude azalduta eta horietan badago elkarrizketa zatiren bat. Deskribapenei dagokienez, ez dira oso ugariak testuan eta ageri badira motzak dira, batez ere pertsonaia nagusia; izan ere, idazleak haiei buruz aurkitutakoa pixkanaka azaltzen du, irakurleak amaierara arte istorioan arreta mantendu dezan.

Bestalde, kontatzeko estiloa nahiko landua da. Batetik, itsasoarekin erlazionatutako hiztegi aberatsa ageri da eleberrian, hala nola itsasontzien atalak (kroskoa, proa, popa) edo kostaldeko izaki bizidunak (hegaluzea, martina, ubarroia). Bestetik, idazleak estiloa pertsonaia jakin batzuetara egokitu du; adibiderik nabarmenena eleberriaren amaieran amak idatzitako egunerokoaren atalean ageri da:

*Hauxe ein baik ez neukan bakeik, zeure bile nabil han
da hamen eta hamentxe topako zatxutela uste dot.*
(188)

Azkenik, Uribek erabilitako metaforen garrantzia eta indarra azpimarratu beharra dago. Hainbat dira eleberrian zehar erabilitakoak baina horien guztien artetik hiru dira azpimarragarrienak. Lehenik, istorioaren hasieran arrainen eta zuhaitzen uztaiak gizakion galerarekin konparatzen ditu, biak denboraren joanaren adierazle gisa. Bigarrenik, aurretik azaldutako gaur eguneko hegazkin eta aireportuek antzinako itsasontzi eta portuekin duten harremana. Hirugarrenik, Txomin Agirre idazleak bere etxe txiroa familia onekoa zen Resurreccion Maria Azkueri erakutsi nahi ez izana Euskaldunok gure literatur tradizioa “txiroa, txikia, desordenatua” (225) nazioartean aditzera eman nahi ez izanarekin konparatzen du Uribek. Haren esanetan euskal literatura mundu osora zabaltzea ezinbestekoa da, etxea egurasteko leihoak zabaltzea ezinbestekoa den moduan.

Iritzia

Bilbao-New York-Bilbao eleberria irakurri ostean, hari buruz pentsatzen hastean burura datorkidan lehenengo gauza istorio metaketa da. Argi dago Kirmen Uribek idatzitako eleberriaren ezaugarri bereizgarriena ez dela irakurtzeko erraztasuna. Nire ustez, irakurketa zaildu egiten duena estilo landua eta hiztegi aberatsaz gain, hainbeste pertsonaia eta istorio desberdin liburu bakarrean batu izana da. Nahiz eta azaldutako istorio horiek guztiak Uriberen helburua lortzeko beharrezkoak izan, hau da, Ondarroako eta bere familiako istorioak aditzera ematea, irakurleari lana erraz ziezaiokeen eleberria era linealean idatziz. Horrela, gertaeren ordena logikoa jarraituz, istorioaren ildo jarraitzea erosoagoa litzateke.

Istorio desberdin guztien gaintik nire arreta gehien bereganatu duena “Dos Amigos” itsasontziaren izenaren jatorriarena izan da dudarik gabe. Eleberriak aurrera egin ahala, idazleak horren inguruko zertzeladak baino ez ditu ematen eta horrek nolabaiteko misterioa ematen dio istorioari. Zoritxarrez, amaieran ematen den jatorriaren azalpena guztiz simplea da eta zeharo desengainatu nau.

Hala ere, oso interesgarria da hainbat mendetan kostaldeko euskal gizarterako garrantzitsua izan den itsasoari lotutako bizimoduaren bilakaera ezagutzea. Eleberriari esker, arrantzaleen bizimodu gogorraren berri izateko aukera du irakurleak: itsasoko eguraldi txarra, hainbat hilabete familia ikusi gabe egon behar izana, baimenen inguruko gatazken ondoriozko atxiloketak... Horrez gain, teknologia aurrerapenen ondorioz Euskal Herriko familia askok jasan zuten bizimodu-aldaketaren berri ere ematen du *Bilbao-New York-Bilbao* eleberriak.

Bibliografia-webgrafia

- *Bilbao-New York-Bilbao*. Kirmen Uribe. Elkar
- <http://kirmenuribe.com/>
- <http://kritikak.armiarma.com/>
- <http://atalak.eus/ikasgela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/index.html>